

Ordizian, 2016ko martxoaren 17a UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

José Miguel Santamaría Ezeiza jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako E.H. Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako E.H. Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako E.H. Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	Ordiziako E.H. Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako E.H. Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M. Jesus Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Behin-behineko IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta jn.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jn.

## BESTE BERTARATZE ETA IRTEERAK

### EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

- 1- 2016ko otsailaren 25ean egindako osoko bilkurako akta onartzea.
- 2- Alkatetza Dekretuen berri ematea.
- 3.- Ordiziako IRABAZIren proposamena Eroski eremuko zirkulazio noranzkoari buruz.
- 4.- ORDIZIA ORAINen proposamena, Kontu Irekien eta Banku Etikoaren Udal Ordenantzari buruzkoa.
- 5.- Hondakin bilketari buruzko herri galdeketaren emaitza berrestea Osoko Bilkurak.
- 6.- Herri galdeketa hautatutako hondakinen bilketa-sistema martxan jartzeko eskaera egitea Sasieta Mankomunitateari.
- 7.- ALBERT FERT irakaslea "Doctor Honoris Causa" izendatzeko eskaera egitea Euskal Herriko Unibertsitateari .
- 8.- Eskaerak eta galderak.

### GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAHIAK:

.-udalak bat egitea PLANETAREN ORDUA izeneko ekimenarekin.

### GORABEHERAK

### ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:00 etan

AMAIERA: 20:05etan



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- Udalbatzak 2016ko otsailaren 25ean egin zuen bileraren akta onartzea

Proposamena

1.- Udalbatzak 2016ko otsailaren 25ean egin zuen bileraren akta onartzea

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Ezenarro jn

Aipatu du:

\* 9. puntuan (euskarazko aktaren 10. orrialdean, gazteleraz 11. orrialdean) *Turkiako Enbaxadaren aurrean jartzen duen lekuan Turkiaren mende dagoen Kurdistanen jarri beharko luke, gazteleraz en el Kurdistán bajo dominio turco.*

\*11. puntuan (euskarazko aktaren 11. orrialdean, gazteleraz 13. orrialdean), *"Hiri Hezitazilea" kontzeptua aipatu du. Horren atzetik, erantsi: Hiri hezitzailearen muina hiritarrak direlako, oinez mugitzen diren herritarrak, eta hiriak berak, hezitzailea izan behar du herritar guztientzat oinezko mugikortasuna bermatuz, batez ere haur eta adinduentzat.*

Gazteleraz: *La esencia de la ciudad educadora es la ciudadanía, que se mueve de forma peatonal, y la ciudad misma, debe ser educadora garantizando la movilidad peatonal de toda la ciudadanía, sobre todo de la infancia y la tercera edad.*

\* 17. puntuan (euskarazko aktaren 26. orrialdean, gazteleraz 30. orrialdean). *Horren alde daudela erakutsi dute. Garrantzitsua iruditzen zaio %75eko birziklatze-tasa lortzea. Horrekin batera, esan du, batzuetan, borondatezko sistemek ez dutela emaitzarik ematen. Kendu batzuetan hori. Gazteleraz a veces jartzen du, eta kendu baita ere.*

\* \* 17. puntuan (euskarazko aktaren 27. orrialdean, gazteleraz 31. orrialdean). *Esaldi bat aldatu dut, ez niolako zentzurik harrapatzen, berriro idatzi dut esan nahi zuena jasota geratu dadin. Parrafo bakarreko erdiko esaldia da, Esan du De Juan Jaunak... eta Dice que está de acuerdo... esaldiaren ondoren datorren da. Horrela geratuko litzateke:*

*Bere ustez pertsona batzuek atez atekoaren kontra egin dute, baina herri-galdeketak balioko du herritarrek aukeratzen den sistema onar dezaten, eta hortik aurrera ondo egin dezaten eskatu ahal izango diegu, ez da aitzakiarik egongo gaizki egiten jarraitzeko.*

*Cree que ha habido una oposición de algunas personas al PaP, pero piensa que la consulta servirá para que la ciudadanía acepte el sistema que se elija, y se les podrá exigir que sean consecuentes, no habrá excusas para seguir haciéndolo mal.*

\* 18. puntuan (euskarazko aktaren 29. orrialdean, gazteleraz 33. orrialdean). Esaldi bat txertatu dut, zerbait zabalago hori definitzeko:

*Ezenarro jaunak esan dio ez dela soilik bidegorriaren proiektuaz soilik ari, baizik eta zerbait zabalagoaz ari dela. Eskaera ez da proiektu jakin bat zehatz-mehatz gauzatzea, proiektu horren atzea dagoen ideiarekin alde egitea baizik, Oria ibaiaren ibarrean oinezko pasealeku irisgarri bat sortzea delako helburua.*

*Gazteleraz: El Sr. Ezenarro le dice que no se refiere sólo al proyecto del bidegorri sino a algo más amplio. La petición no es para que un proyecto concreto se ejecute tal cual, sino para que se defienda la idea en la que se basa ese proyecto, es decir, el objetivo de conseguir un paseo de rivera accesible a lo largo del río Oria.*

Zuzenketak eginda bozkatu egin da.

### Bozketa

Aldekoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du zuzenketak eginda.



## 2.- Alkatetzaren otsaileko dekretuen berri ematea

### Maiza and

Zerrendako bi dekretu aipatu ditu, eta zehazki B16/00169 eta B16/00189 dekretuak. Bi horiek ordainketak zatikatzeari buruzkoak dira, baina horietako batean zatikatzea eskatzen duten pertsonen izenak ageri dira, eta bestean ez. Haren iritziz bermatu beharko litzateke, ahal den neurrian, pertsonen pribatutasuna.

### Alkate jna

Erantzun dio dekretuen zerrenda soilik zinegotziei helarazten zaiela osoko bilkurarako deialdiarekin batera, eta, hortaz, datu pertsonalak babesteari buruzko araudia betetzen dela. Alabaina, egia da pertsonen identitatea saihestu daitekeela espedientearen gaia deskribatzen denean. Idazkariak esandakoa gogoan hartu du adostutakoa gauzatzeko.

*Osoko bilkura jakinaren gainean dago.*



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### 3.- Ordiziako Irabazi alderdiak Eroskiren eremuko zirkulazioaren noranzkoari buruz aurkeztutako proposamena

#### Proposamena

IRABAZI ORDIZIAK, Eroskira edo Goierrri Eskolara maiz joaten diren hainbat herritarren kezka jaso ondoren, honako hau jakinarazten digu:

Eroskitik RENFEra bitarteko tuneleko espaloia oso estua da eta normalean bertan izaten den zirkulazioa kontuan izanda, arrisku handia sortzen da bertan. Autobiatik irten edo sartu egiten direnez bertatik autoak, auto dentsitate-handiko eremua da zehaztutakoa. Bi aldeetan espaloiak estuak dira, eta oso zaila da erosketa-orgekin edo umeen karroekin ibiltzea bertatik eta herritarrek espaloitik jaitsi behar izaten dute beste batzuekin gurutzatzen direnean.

Gure ustez istripuak saihesteko presazko izaerarekin har daitezkeen irtenbideak daude.

Irabazi Ordiziak Ordiziako Udalarari eskatzen dio ondorengo proposamena kontuan har dezala:

- Eroski irteeratik RENFEko tunela pasa ondorengo puntura bitarteko tartea zirkulazio alternatibokoa izatea, gaur egungo zatia luzatuz.

EROSKIko sarrera/irteera aurretik semaforo bat ipintzea zirkulazio alternatiboa arautzeko.

#### Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

#### IRABAZIko Vazquez and

Azaldu du aipatu eremuan zebiltzan hainbat herritarren kezka jasota mozioa aurkeztu duela osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin.

Aipatu du Eroskiko irteeratik tren-geltokiko zubiraino doan espaloiak hainbat puntutan neurri desberdinak dituela. Espaloia oso estua da, eta erosketa-orgak nahiz haurren orgak daramaten oinezkoak gurutzatzen badira, espaloitik jaitsi beharrean izaten dira, eta horrek arriskua sortzen du ibilgailuak badabilta.

Konpondu beharreko puntu beltza da.

Bere iritziz, soluzioetako bat izan daiteke semaforoa Eroskiko irteeran jartzea, eta horrekin autoen alternantzia erregulatzea, autoak noranzko bakar batean joan daitezkeen.

## Alkate in

Erantzun dio halaxe dela; puntu beltza da, oinezkoei segurtasunik ematen ez diena. Eta esan du, aurreko bi legealdietan aztertu izan dela puntu hori hainbat planen bitartez.

## Eguren ina

Esandakoarekin ere ados, esan du aurreko legealdian hasi zirela gaia aztertzen, eta soluzio bat ere proposatu zela.

## Bozketa

Aldekoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



## 4.- ORDIZIA ORAIN alderdiaren proposamena, kontu irekien eta banka etikoaren inguruan ordenantza bat onartzeko

### Proposamena

KONTU IREKIEN ETA BANKA ETIKOAREN UDAL ORDENANTZAREN PROIEKTUA ORDIZIAKO UDALEAN

### ZIOEN AZALPENA

Gardentasunak funtsezko eginkizuna betetzen du demokraziaren eta berritze demokratikoaren kontzeptuari datxekion elementu moduan, izan ere, konfiguratzen du euskal administrazio publikoaren antolaketaren diseinu berri bat lurralde eremu guztietan, horixe adierazten baitu euskal sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren Lege Proiektuak, euskal sektore publikoan Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Lege Proiektuak eta 19/2013 Legeak, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa lortzeari eta gobernu onari buruzkoa, zeintzuk beren aplikazio eremuan sartzen dituzten Euskadiko toki administrazioa osatzen duten entitateak eta haien ente eta erakunde lotetsiak nahiz mendeakoa.

Gardentasun helburu honetan ezinbestekoa da sartzea banku kontuak, informazioa lortzeko eskubidean sartuta dagoen informazioan, zeina jasotzen den 19/2013 Legean eta lege proiektuetan, une honetan tramitean.

Gainera, begien bistakoa da azken urteotan ari garela pasatzen krisi ekonomiko larria eta luzea, ekarri dituen gizarte ondorio sakonak, non finantza entitateen eginkizuna geratu den ezbaian. Bankuek lagundu dute, beste gai batzuen artean, larregi sustatzen jarduera inbiliaria, kredituak gutxiago

gainbegiratzeko, produktu oso toxikoak merkaturatzen,... eta hori guztia erabakigarria izan da bizi dugun krisi ekonomikoarentzat.

Ordenantza hau ematen da udal autoantolaketako ahalaren babesean, aitorturik dagoena 7/1985 Legean, 4. artikuluan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen, eta erregelamendu bidez garatzeko ahalaren babesean, eta, zentzu horretan, Toki Administrazioaren gardentasun berme bat da maila gorenean, izan ere, hor erregulatzen den informazioa lortzea konfiguratu du ez hura lortzeko eskubide bidez, herritarrak erabili behar duena eta herritarren aldetik ekintza bat behar duena, baizik eta konfiguratu du "publizitate aktiboa"ren bidez, hau da, informazio eskura jarrita Ordiziako Udalaren Gardentasunaren Atarian.

Banka tradizionalak parte hartu du eta, aldi berean, sustatu du areagotzea eta elikatzea sistema espekulatuak eta aberastasuna pilatzeko sistema bat, gizarte, lan eta ingurumeneko eskubide batzuen kalteran, eta nahiago izan du bere onura propioa herritarren baino, eta jarraitzen du ekintza batzuk egiten, ez oso etikoak, hala nola exekutatu eta exekutatzeak, inbertitzen armamentu industrietan... Nahitaez behar dugu aldaketa funtsezko bat forman eta tresnetan finantza jardura eta kreditu jardura egiteko, mugimendu ekonomikoak sustatzen laguntzeko, finantzaketa sozial eta iraunkor baten bidez, mesede egingo diena herritarren interes orokorrei.

Euskal Autonomia Erkidegoan hainbat taldek, finantza etikoetan interesaturik, 2003an sortu zuten Fiare Fundazioa, herritar aktiboen mugimendu bat eratzeko, banka etiko baten oinarriak ezartze aldera. Gipuzkoan bazkide direnei esker lortu da finantzaketa erakunde etiko eta kooperatibo bat, europar dimentsio batekin. Botere politikoek, haien eskumenen eremuan, lortu behar dute haien politiketan ekonomia solidario eta etikoak sustatzea herritarren zerbitzura.

## TITULU BAKARRA

### 1 Artikulua. Kontu irekiak

Ordenantza honek deklaratu ditu irekita eta eskuragarri, dagokion gardentasun atariaren bidez, Ordiziako Udalaren banku kontu guztiak, irekita daudenak finantza entitateetan, eta aplikazio eremu subjektibo horretan sartzen dira Udala bera eta haren entitateak eta erakundeak, Udalari lotuak nahiz Udalaren mendekoak.

### 2 Artikulua. Kontu publikoak

1. Banku kontu ireki eta eskuragarri bat da kontu bat zeinetan edozein herritar sartu daitekeen, Ordenantza honetan xedatutako hitzetan eta baldintzetan sartzen bada.

2. Arau honetako aplikazio eremuan sartuta dauden entitateek eta erakundeek publiko egingo dituzte banku kontuak, haien titularrekoak, eta banku kontuen saldoa, Ordenantza honetan xedatutako eran.

3. Kasu guztietan, agertu behar dira kontu bakoitzaren datu hauek:

- a) Banku kontuaren mota.
- b) Izena
- c) Titulartasuna

Banku, finantza edo kreditu entitatea eta sukurtsala, hala badagokio, eta kontu zenbakia (IBAN kodea). Edozelan ere, segurtasun arrazoiengatik, kontu zenbakia agertuko da behar bezala kodetuta, argitaratuko dira identifikatzen duten lehen lau digituak eta azken lau digituak.

e) Saldo orokorra.

Arauz erakunde eskudunek ezartzen duten beste edozein, haien autonomiaren eremuan.

4. Informazio publiko hori lortzeko eskubidean ez dago sartuta kontuaz eragiteko aukera.

5. Informazio hori eskuratzeko eskubide horren mugak zehazten dituzte 15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koa, datu pertsonalak babesteari buruzkoa, eta beste lege batzuek, berariaz erreserbatzen badute daturen baten sekretu izaera.

6. Informazioa eguneratuko da hiruhileko bakoitzaren azken egunean, eta adieraziko du aurreko hilaren azken egunaren balio eguna.

3 Artikulua. Politikak banka etikoa edo soziala sustatzeko

Udalak, bere eskumenen eremuan, politika batzuk erabakiko ditu banka etikoa edo soziala sustatzeko. Politika horiek gauzatuko dira, bereziki, neurri hauek hartuta:

a) Lankidetzaz eta laguntza mekanismoak ezartzea banka etiko edo sozialarekin.

b) Pasatzea bere kontu eta operazio guztiak edo horietako zati bat banka etikor edo kooperatibora.

c) Ez irekitzea banku kontu berririk, ezta ere, kontratatzea produktu berririk betiko finantza entitateetan, frogatzen ez bada behar teknikoa dagoela.

d) Sustatzea eta sentsibilizatzea gipuzkoarrak banka etikoaren erabilerari eta onurei buruz.

e) Sustatzea banka etikoak eta kooperatiboak sortu daitezkeen Gipuzkoan.

4 Artikulua. Non argitaratu

Gardentasuna izan behar duen informazio guztia, Ordenantza honetan xedatua, argitaratuko da Ordiziako Udaleko Gardentasun Atarian.

5 Artikulua. Aurkezpena.

1. Informazioa argi eta garbi aurkeztuko da, egituraturik eta ulertzeko moduan herritarrek, eta, ahal dela, formatu berrerabilgarrian.

2. Banku kontuetako datuetako sarbidea, Ordenantza honetan xedatutako terminoetan, egokituko zaio, segurtasunari eta elkarreragingarritasunari buruz, 3/2010 Errege Dekretuan xedatutakoari, urtarrilaren 8koa, erregulatzen duena Segurtasuneko Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoaren eremuan, eta 4/2010 Errege Dekretuan xedatutakoari, urtarrilaren 8koa, erregulatzen duena Elkarreragingarritasuneko Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoaren eremuan.

6 Artikulua. Formatua.



1. Argitaratutako datu guztiak egongo dira «datu ireki»en formatuan, hirugarren batzuek, toki administraziokoak ez direnak, jaisteko, berriro erabiltzeko eta berriro banatzeko moduan egon daitezten.
2. Formatu horrek, aurreko atalean deskribatua, kasu egingo die elkarreragingarritasuneko Eskema Nazionalean ezarritakoari, 4/2010 Errege Dekretuan xedatua, urtarrilaren 8koa, erregulatzen duena Elkarreragingarritasuneko Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoaren eremuan, eta 1495/2011 Errege Dekretuan xedatutakoari, urtarrilaren 24koa, garatzen duena 37/2007 Legea, azaroaren 16koa, sektore publikoaren informazioa berriro erabiltzeari buruz estatuko sektore publikoaren eremurako.

#### 7 Artikulua. Bultzada eta jarraipena

Ogasunari buruz eskumena daukan zinegotziari egokituko zaio bultzatzea Ordenantza hau abian jarritzea; edozelan ere, haren aplikazio eremuko instituzio, entitate eta erakundeek behartuta daude neurriak hartzera, Ordenantzaren aginduak bete daitezten, beren eskumen eremuetan.

### AZKEN XEDAPENAK

#### Lehena. Garatzeko ahalmena

Alkateak ahalmena izango du agindu batzuk eta jarraibide batzuk emateko, beharrezkoak izanez gero Ordenantza hau egoki interpretatu, garatu eta aplikatzeko.

#### Bigarrena. Indarrean sartzea

1. Ordenantza hau indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
2. Hilabeteko epean, Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, kontu guztiak publiko egingo dira Gardentasun Atarian, Ordenantza honetan xedatutako terminoetan.
3. Sei hileko epean, Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskura izango dira mekanismo batzuk, behar-beharrezkoak direnak kontu bakoitzaren saldo orokorra lortu ahal izateko.

#### Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

#### Alkate jn

Esan du aurkeztutako proposamenak beharrezkoak diren txostenak eta ordenantzak eta araudiak onartzeko jarraitu beharreko prozedura behar dituela onartuko bada.

Proposatutako banka etikoaren inspirazio iturria bultzatzeko beharrezkoak diren artikulua jasoko dituen ordenantza aztertzeko eta idazteko akordioa eta konpromisoa gaur bertan hartzea osoko bilkurak.

### Sukia and.

Euskaraz irakurri du ordenantza onartzearekin lortu asmo den helburua arrazoitzen, argudiatzen eta azaltzen duen testuko zioen azalpena.

### Soto and.

Gaztelaniaz irakurri du.

### Alkate jn

Azaldu du Ordizia udalerrri aitzindarietako bat izan zela gai horren inguruan, 2010. urtean hainbat urrats emanda.

Arlo horretan lan egin duten elkarte eta pertsona zehatzak aipatu ditu. Esan du udalerrri aitzindarietako bat izateaz gain, Ordiziak 5.000 euroko ekarpena egin zuela (Estatuan bigarren udalerrria) proiektua kapitalizatzeko. Bestalde, aipatu du gaur goizean bertan bilera egin duela FIARE Banka Etikoko zuzendari Juan Garibirekin.

Hori guztia kontuan izanik ondorengo AKORDIO PROIEKTUA hartzea proposatzen da:

- Banka etikoaren inspirazio iturria bultzatzeko beharrezkoak diren artikulua jasoko dituen ordenantza aztertze eta idazteko akordioa eta konpromisoa hartzea osoko bilkurak.

### Bozketa

Aldekoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



### 5.- Udalbatzaren berrespena hondakinak jasotzeari buruzko herri-galdeketa

#### Proposamena

2016ko otsailaren 25ean ohiko deialdian Udalak egin zuen osoko bilkuran aho batez onartu zen hondakinak biltzeko sistemaren inguruko herri galdeketa egitea, aurretik Hondakinen Mahaia proposatuta.

Jarraitu beharreko prozedura, egin beharreko galdera eta kontsulta egiteko eguna zehaztu ziren bertan.

Aurreko martxoaren 13an herri galdeketa egin zen hondakinak biltzeko sistemari buruz, bi aukera emanda:

- Edukiontzi kolektiboen sistema, errefuxa eta organiko frakzioentzako txipekin.
- Sistema mistoa, errefuxa eta organiko frakzioak Atez ate jasotzeko eta gainerako hondakinak jasotzeko edukiontzi kolektiboak.
- 

Galdeketa honetan lortutako bozken zenbaketa egin ondoren, emaitza ondorengoa da:

- Edukiontzi kolektiboen sistemaren aldeko bozka: 2.325 bozka.
- Atez ate eta edukiontzien sistema mistoaren aldeko bozka: 1.145 bozka.
- Baliogabeko bozka: 9
- Bozka txuriz: 7

Hori guztia kontuan izanik ondorengo AKORDIO PROIEKTUA hartzea proposatzen da:

2016ko martxoaren 13an egindako hondakinen bilketari buruzko galdeketa lortutako emaitzak berrestea Udaleko osoko bilkurak.

#### Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

#### Alkate jn

Pasa den martxoaren 13an (igandea) hondakinak jasotzeko herritarrei eman zitzaizkien bi aukerekin egin zen herri-galdeketa dela-eta, aukera baten eta bestearen alde emandako botoei eta boto zuriari eta baliogabeen emaitzei buruzko informazioa eman du.

- Edukiontzien sistemaren aldeko botoak:
- Sistema mistoaren aldeko botoak:
- Boto zuriak:
- Balio gabeko botoak:

Bere iritziz, esperientzia aberasgarria izan da, eta hauteskunde-kanpainan agindutako puntuetako bat bete duela iritzi dio.

Parte-hartzaile eta hondakinen mahaiko kide guztiei eta, oro har, kontsultan parte hartu duten eta kontsulta gauzatzea posible egin duten guztiei eskerrak eman nahi dizkie.

Esan du herri-galdeketaekin herritarrek hondakinak biltzeko sistema zehatz bat aukeratu dutela, baina guztiz garrantzitsua dela aurrerantzean herritarrek arduraz jokatzeko eta gaika banatzea, ahal bada orain arte baino gehiago.

Balioa eman dio prozesu parte-hartzaileari, eta esan du egun historikoa izan dela, herrian egin den lehenengo galdeketa izan delako.

Esan du guztiok lagundu dugula, eta haren iritziz horixe dela bidea. Herritarrek notario-eginkizuna bete dute, baina arestian aipatu moduan, orain garrantzitsua da herritar horien ardura birziklapenean; % 75eko birziklatze-tasatik abiatu % 85era iristeko. Mahaiaren eginkizuna izango da, aurrerantzean, birziklatzearen jarraipena egitea.

#### Ezenarro jn

Esan du galdeketa egina dela, hondakinak biltzeko sistema zehatz baten aldeko hautua egin dela, eta hilabete batzuk barru martxan jarriko dela.

Esan du Ordizian zaborrarekiko egoera gero eta okerragoa dela. Heziketa funtsezkoa da, eta ordiziarrei ulertarazi behar zaie oinarritzko arauak bete behar dituztela. On litzateke, sistema berria ezarri bitartean, behar bezala betetzea.

#### Alkate jna

ak esan dio guztiz ados dagoela, eta deia egin dutela ildo horretan. Otsailean birziklatze-tasa % 74koa izan da.

#### Ezenarro jn

Esan du martxoan zikinkeria gehiago ikusten duela; horrek esan nahi du tasa gehiago ordaindu beharko direla.

#### Sukia and.

Esan du bat datorrela esandakoarekin, eta herri-galdeketaryi buruzko balorazioa aurrerago egingo duela. Galdeketaryi dagokionez, esan du esperientzia aberasgarria izan dela, baina izan direla, izan ere, hobetu daitezkeen alderdi negatiboak.

#### Dubreuil jn

Bere iritziz galdeketa egun historikoa izan da. Hondakinen mahaiaren funtzionamendua goraiatu du, eta esan du mahai horretan zenbait unetan sortu diren hainbat gatazka konpondu direla. Eskertu du, orobat, igandean lan egin behar izan eta galdeketa lagundu duten udaleko hainbat langileren lankidetzatza.

EH-Bilduk udalbatzari eskatu dio bilketa-sistemaren aldaketa aho batez onartuko den modu berean onar dadila aho batez herritarrei jakitera ematea honako puntu hauek:

- 1) Bilketa-sistema berria ezarri bitartean, nahitaezkoa da hondakinen gaikako bilketarekin jarraitzea.
- 2) Ezin da onartu zaborrak kalean, edozein modutara, edozein ordutan eta edozein lekutan uztea; horrela utzitako zaborra errefusa da.

3) Errefusa gehiago sortzeak berarekin dakar tratamenduan gehiago ordaindu behar izatea, eta gainera galdu egingo genituzke material birziklatu hori saltzetik lortutako diru-sarrerak.

Era berean, udal-gobernuari eskatu zaio eskuartean ditugun publizitate-bitartekoen bidez (web-orria, udal-buletinak edo -aldizkariak, eta abar) mezu hori zabaltzea hondakinen mahaiari hondakinak gaika jasotzeko heziketa-kanpainaren barruan behin eta berriro errepikatu dena betez.

Udalkide guztiak aipatu puntu horiek proposamenaren barruan jasotzearen alde agertu dira beraz, proposatutak akordioa honela idatzia geratu da

### Proposamena

2016ko otsailaren 25ean ohiko deialdian Udalak egin zuen osoko bilkuran aho batez onartu zen hondakinak biltzeko sistemaren inguruko herri galdeketa egitea, aurretik Hondakinen Mahaiak proposatuta.

Jarraitu beharreko prozedura, egin beharreko galdera eta kontsulta egiteko eguna zehaztu ziren bertan.

Aurreko martxoaren 13an herri galdeketa egin zen hondakinak biltzeko sistemari buruz, bi aukera emanda:

- Edukiontzia kolektiboen sistema, errefuxa eta organiko frakzioentzako txipekin.
- Sistema mistoa, errefuxa eta organiko frakzioak Atez ate jasotzeko eta gainerako hondakinak jasotzeko edukiontzia kolektiboak.
- 

Galdeketa honetan lortutako bozken zenbaketa egin ondoren, emaitza ondorengoa da:

- Edukiontzia kolektiboen sistemaren aldeko bozkak: 2.325 bozka.
- Atez ate eta edukiontzien sistema mistoaren aldeko bozkak: 1.145 bozka.
- Baliogabeko bozkak: 9
- Bozkak txuriz: 7

Hori guztia kontuan izanik ondorengo AKORDIO PROIEKTUA hartzea proposatzen da:

- 2016ko martxoaren 13an egindako hondakinen bilketari buruzko galdeketa lortutako emaitzak berrestea Udaleko osoko bilkurak.
- Herritarrei jakitera ematea honako puntu hauek:
  - 1) Bilketa-sistema berria ezarri bitartean, nahitaezkoa da hondakinen gaikako bilketarekin jarraitzea.
  - 2) Ezin da onartu zaborrak kalean, edozein modutara, edozein ordutan eta edozein lekutan uztea; horrela utzitako zaborra errefusa da.
  - 3) Errefusa gehiago sortzeak berarekin dakar tratamenduan gehiago ordaindu behar izatea, eta gainera galdu egingo genituzke material birziklatu hori saltzetik lortutako diru-sarrerak.

Era berean, udal-gobernuari eskatu zaio eskuartean ditugun publizitate-bitartekoen bidez (web-orria, udal-buletinak edo -aldizkariak, eta abar) mezu hori zabaltzea hondakinen mahaiari hondakinak gaika jasotzeko heziketa-kanpainaren barruan behin eta berriro errepikatu dena betez.

### Bozketa

Aldekoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



### 6.- Sasieta Mankomunitateari herri-galdeketa hondakinak jasotzeko aukeratutako sistema martxan jartzea eskatu

#### Proposamena

2016ko otsailaren 25ean ohiko deialdian Udalak egin zuen osoko bilkuran aho batez onartu zen hondakinak biltzeko sistemaren inguruko herri galdeketa egitea, aurretik Hondakinen Mahaiari proposatuta.

Aipatutako galdeketa 2016ko martxoaren 13an egin zen eta emaitza honako hau izan zen; edukiontzi kolektiboaren sistemaren aldeko 2.325 bozka eta sistema mistoaren aldeko 1.145 bozka.

Gaur egun Ordiziako udalerrian etxeko hondakinak biltzeko ezarrita dagoen sistema atez atekoa da, frakzio guztietan.

Herri galdeketa lortutako emaitzak ikusita eta herritar gehienek edukiontzi kolektiboak hautatu dituztela kontuan izanda, ondorengo AKORDIO PROIEKTUA hartzea proposatzen da:

Sasieta Mankomunitateari eskatzea ahalik eta azkarren ezartzeko edukiontzi kolektiboaren sistema etxeko hondakinak biltzeko.

Herri-galdeketa emaitzaren ondorioz, ezinbestekoa dugu sistema berria ezartzea, eta Sasieta Mankomunitateari aldaketa hori alait azkarren burutzea eskatzea.

### Bozketa

Aldekoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



## 7.- Euskal Herriko Unibertsitateak ALBERT FERT irakaslea "honoris causa" doktorea izenda dezala eskatzea

### Proposamena

Julian Maria Gonzalez Estevez jaunak bidalitako idatziaren berri ematen da. Bertan Ordiziako Udalari proposatzen dio babesia eman diezaiola Euskal Herriko Unibertsitateak ALBERT FERT irakaslea "Doctor Honoris Causa" izendatzeko hautagaitzari.

ALBERT FERT irakasleari Fisikako Nobel Saria eman zioten 2007. urtean, eta eztabaida ezinak dira izendapen honetarako lortu dituen meritu akademikoak.

Gainera, UPV/EHUko Magnetismo Taldearekin zientzia-lankidetzaren harreman estua du eta lankidetzaren horren emaitza da Fert irakaslea Ordizian antolatutako 2011ko RTNSA eta 2015eko RTNSA-2 kongresuetara etorri izana.

Horregatik guztiatik ondorengo akordio proiektua proposatzen da:

- ALBERT FERT irakaslea "doctor Honoris Causa" izendatzeko eskatzea Euskal Herriko Unibertsitateari bere meritu profesionalengatik eta Ordiziako udalerriarekin izan duen lankidetzaren estuagatik.

### Alkate jin

Esan du azken urteotan orpo orpo egin dela lan Ordiziako Julian Gonzalez irakaslearekin; horrek aukera eman digu Ordizian bi kongresu egiteko. ALBERT FERT irakasleak, 2007an fisikako Nobel saridunak, hirutan hartu du parte.

Orain eta Julian Gonzalez irakaslearen eskutik, Euskal Herriko Unibertsitateak aipatu Nobel sariduna "honoris causa" doktorea izendatzea proposatzen da.

### Bozketa

Aldekoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



### 8.- Galde-errequak

Dubreuil jaunak udalari eskatu dio bat egin dezala PLANETAREN ORDUA izeneko ekimenarekin.

Kanpainaren barruan hainbat elkartek hartzen dute parte planetan ematen diren aldaketen inguruan herritarrak sentsibilizatzeko eta aldaketa horiek geldiarazteko. Orain arte Euskal Herriko 10 udalek egin dute bat ekimenarekin. Udalari eskatu dio Ordiziakoa horietako bat izatea, gaiari publizitate egitea, eta ordiziarrak gonbidatzea etxeetako argiak itzal ditzaten eta martxoaren 19an eraikin publikoetan 20:30etik 21:30era egingo den itzalaldia egitea.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.